

» TELEGRAMA

Xavier Dolan zuzendariari eskainitako zikloan, *Laurence Anyways* filma emango dute urtarilaren 26an Bilbao Arten: 30 urterekin sexuz aldatzeko asmoa adierazten duen literatura irakaslearen istorioa da *STOP* Zer dira ba 20 urte? Tolosako Bonberen gaztetxeak **1997 Hit Erremixak festa** prestatu du urtarilaren 27rako. Sarrera sei euro kostatzen da eta CD bat oparituko dute *STOP* Donostiako Tabakalerak **Jean-Marie Straub eta Danièle Huillet** zinegileei eskainitako zikloaren barruan, urtarilaren 27an *Othon* film luzea eskainiko du *STOP*

» DISKOA

Euskal afrobeat festa



Joxi Ubeda

**Kalè kalè**

MAKULU KEN

Autoekoizpena, 2016

Afrobeat erritmoak eta doinuak jotzen ditu Makulu Ken taldeak, grina, gogo eta bizitasun handiarekin. Kantu alaiak dira, dantzagarriak, gorputza mugitzeko aproposak; melodiak politak eta erritmoak beroak.

Kantuak ondo jantziak daude, eta horretarako musika tresna ugari erabili dituzte: perkusioak, haize musika tresnak, ahotsak, teklatuak, gitarrak... Jende ugari parte hartu baitu grabazio saioetan, eta baita diskoa osatzeko gainerako zereginetan ere. Aurkezpena eta diseinua ere ederki landuak daude, eta emaitza dotorea da, koloretsua, kantuak bezala.

Kantuen bidez mezu gordinak transmititzen dituzte: "Hilotzez gainezka dago Mare Nostrum-a (edo), horratx pribilegio segun eta non jaio" (*Ihesi* kantua); "Planetak lerro batean ta ni pantailari begira, azken tren gure zai ta gu pantailari begira" (*So!*); "Bihotzgabeen esku psikopa-

ten erresuman, dena ero batzuen kontrolpean" (*1. Atala, Bilatzen Papur Ero-riak*); "Goxo-goxo bizi gera, txepelak, epel-epel koldarrak" (*2. Atala, Babesturik Paltsukeri Epelean*).

Dena den, alaitasuna eta bizipoza transmititzen ahalegintzen dira, azken batean, bizitzako une bakoitzaz gozatzeari osasungarria baita: "Mamia ateraziozu bizitzari, geratzen zaizun segundoko bakoitzari atera zuku" (*Itxaron gabe*).

Horretarako, Makulu Ken taldearen izenak berak adierazten duen filosofia aldarrikatzen dute: makulurik gabe hitz egitea, komunikatzea, maitatzea, bizitzea: "Behar ditugu maitatzeko makuluk, makuluak mintzatzeko, makuluk, norbera izateko ere, kotxe-makulu, telefono-makulu, diru-makulu, moda-makulu" (*Makuluk*).

Aurreko diskoa 2012an kaleratu zuten. Disko hori aurkezteko dozenaka emanaldi egin ondoren atseden hartu zuten, abesti berriak sortzeko eta atontzeko, eta berriz ere jendaurreko emanaldiak egiteko prest daude, *Kalè kalè* diskoarekin: "Eta kalez kale goaz gure musiken erritmoak astintzen, kontzientzien zalantzak mugitzen eta bazterrak nahasten!". ■



Makulu Ken taldea jendaurreko emanaldi batean.

MAKULU KEN